

Goibekokale

1996ko ekaina. 14zk.

ELGETAKO ALDIZKARIA

SOR DAMIANA
(AGURTZANE IRIBAR) SALBADOR 9

**UDA HASTEKO...
ELGETAKO JAIAK**

Maderas Gallastegi, s.a.

MENDI UZTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

"EGI"ren Akanpada Elgetan: Azalpenak

APIRILEKO alean "EGI"ren akanpadari buruz argitaratutako idatzien ondorioz, behean sinatzen dugunok ondorengo zehaztasunak azaldu nahi ditugu:

1- "EGI"ren AKANPADA Elgetan ospatu zen, Gipuzkoako "EGI"ko antolamenduak horrela erabaki zuelako (nahiz eta beste herri batzuk ere bururatu). Aipatzen diren "Interes partikularrei buruz, beste edozein talde edo gazte antolamenduen antzerakoak izango zirela uste dugu.

2- Udalak ez du inposatu AKANPADA hau eta era berean ez du inposatzen Elkarteak, Kirol Erakundeak edo partikularrak antolatzen dituzten ekintzak: kirol iharduerak, kultur ekintzak edo jaialdiak. Alderantziz, sarritan laguntza ematen du, ELGETA eta elgetarrentzako ongarrria dela uste duelako.

3- EGIREN AKANPADAKO kasuan, udalak egin duen gauza bakarra dagozkion baimenak ematea izan da (Martxoaren 25eko Gobernu Batzordean, Batzordea osatzen zuten 3 zinegotzien botoekin: Patxi Basauri, M^a Jesus Lete eta Xabier Ezpeleta).

TAULA JARTZEARI eta beste lan batzuei buruzko GASTU OSOA (89.660 pta) "EGI"ren kontura izan da, Udalak 15.000 pta kobratu ditu TAULAREN ALOKAIRUARENGATIK. Ez da batere gasturik izan Udaletxearentzako.

4- Udalak beste erakundeentzako beharrezko baimenak emango zuela edo ez zalantzan jartzea, Udalaren inpartzialtasuna ezertan oinarritu gabe aurrepaitzea da.

Orainarte Udalak ez du inor diskriminatu baimenak ematerakoan (Eskatzailearen "Kolorrea" kontuan hartu ez delarik).

5- Harritzekoa da BERRAN-

DOKUA ingurunean APARKALEKUAK KENTZEARI buruzko kritika. Beste ekintza desberdinetarako egiten den bezala, udalak APARKALEKUAK kentzeko baimena eman zuen (Bakarrik zati baten) aipatutako ingurunean: TXIRRINDULARITZAKO lasterketa, MOTORREN kontzentrazioa, PILOTA partiduak (telebistatik emandakoan) e.a. Udalak Berrandokua inguruneke jabearen baimena du, ingurua erabili eta antolatzeko. (Beraz, APARKALEKUAK antolatu eta MUGATZEKO ere bai).

6- KULTURA, KIROL eta GAZTE arloan ematen duen laguntzari buruz, KULTURA eta KIROLAREN hazkuntza handiena lortzeko urte askotan Udala saiatzen ari dela azpimarratu behar da. Hor daude KIROL INSTALAZIOAK (osorik Udalak ordaindutako monitorearekin) edo KULTUR ETXEA osorik Udalak ordaindutako Kultur Dinamizatzailearekin. Era berean, dirulaguntzak ematen ditu Kirol eta Kultur taldeentzako. Baita ere, lokalak jarri ditu Kultur Etxean *Goibekokale* Aldizkariarentzako eta Eskola Zaharretan E.G.Arentzako (Elgetako Gazte Asanblada).

Zalantzarik gabe, GAZTEAK dira onuradun nagusienetarikoenak. Lan arloan ere, Udala lan gogorra egiten ari da lantegiak Elgetara ekartzen, herrikoei eta bereziki gazteei lana eskeintzeko.

7- Bukatzeko, beti zerbait hobetzeko gelditzen dela esan behar, eta horregatik borrokan jarraitu behar da bai Udaletxetik, bai beste erakundeetatik: kirolekoak, kulturalak, lantegiak, e.a. Baina mesedez, EZ dezagun mamurik ikusi EZ dagoen tokian.

Elgetako Udaletxeko EAJ-PNV Taldeko Zinegotziak

Berriz ere eskerrak emateko

Ederki hasi eta amaitu ditugu aurtengoan ere jaiak. Giro aparta eta eguraldia...

Egun hauek ondo pasatzeko eginak daude baina badago jendea lanean edo behintzat ordu batzuk aldizkari honengatik emateko prest. Iaz bezala, txozna ipintzea erabaki dugu, bertan ateratzen dugun dirua aldizkariako azpiegitura hobetzeko erabiliko baitugu eta lan prozesuko baldintzak hobetzeko.

Nola edo hala jendea beti konprometitzen da *Goibekokalekin*: hilabetero kolaboratuz edo ekintza hauetan parte hartuz. Jende askori esfortsu bat suposatzen dio hilabetero lanaren ondoren edo ikasketen ondoren ordu batzuk idazten pasatzea edo beste modu bateko antolaketan mailako gaiak eramaten ihardutea. Beraz hemendik merezimendu osoz ZORIONAK. Jende horri esker aldizkari hau posible izaten da hilabetero eta urte askotan guztion laguntza eta babesa izaten jarraituko dugula uste dugunez, hemen jarraituko dugu bitartean.


Helburua garrantzitsua dela ez dugu dudarik. Oraingoa gure txanda iritxi da. Beti izan dugulako jendea animatzen, orain guk animatu nahi zaituztegu, konpromezu horri eusten jarraitu dezazuen *Goibekokalek* hor jarraitu dezan.

Goibekokaleko Erredakzio Kontseilua

Estampaciones

Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Lekutan

Lekutan dago eguna, telebista Likusleak batuko garena, eta ematen diguten guztia aztertu ondoren, zer jarri eta zer kendu erabakitzeko gai izango garena.

Lekutan dago eguna, umeen heziketa, guztiz eskolako profesionalen eskuetan utzi beharrean, gurasoak eta ez garenok ere, zer egin handia daukagula konturatuko garena.

Lekutan dago, lehenengo komunioa, bederatzirekin egin beharrean, nahi duenak sentitzen duenean egiteko aukera onartuko den eguna.

Lekutan dago, kolektibo bat bezala funtzionatu behar dugula edo bestela pikutara goazela konturatuko garen eguna. Herri bat ez dela antolatzen lau urtetan behin botoa eman eta "udaletxeak konpondu dezala" esanda. Ardura eta botere guztia alkatearen eskuetan jarri eta egiten diren ekintza guztiak bere eskutik pasa beharrean, lekutan dago, gaurko antolaketa gainditu eta edozein arazo edo proiektori aurre egiteko gai izango garen eguna, alkatearen beharra sentitu gabe, parte hartzea ugaritu eta ardurak bere gain hartuko dituen kolektibo bat antolatuz.

Komentario hau egin nion orain dela gutxi lagun bati eta erantzun zidan: -Lekutan hago hi Joseba, lekutan hago hi!

Hala ere, zer eginik ez dagoela uste duenari, dena egiteko dagoela esan nahi diot.

Joseba Elkoro



Zinpekoen epaaimahaia (jurado popularra) eskubide ala obligazio ote?

Eginkizun publiko honen inguruan badira bi korronte: "eskubide" dela diotenak alde batetik eta "obligazio" dela diotenak bestetik.

Eskubide izatearen alde apostu eginez, zera galde genezake: Ez al dauka norberak eskubiderik bere erantzukizunaren mugak noraino diran erabakitzeko? eta, denok al gara gai honelako erabaki batek izan ditzakeen ondorioei aurre egiteko?

Hau kontutan izanik zuzenbideak, pertsona bakoitza eduki ditzakeen arazoetatik babestu nahian, eskaintzen duen bidea ondoko hau da: Jurado Legearen 12.7 artikuluan, Juaradoan parte ez hartzeko arrazoitza, azken lerroan zera dio: Arrazoi moduan erabili daitekela Funtzio hau betetzeak, norberari kalteren bat sortzea". Artikulu honetan oinarriturik, badi-rudi "kontzientzia eragozpen" eskubideari bide bat irekitzen zaiola.

Guzti hau kontutan izanik eta oraindik lege hau gaztea den arren, espero dut, estatu "demokratiko" hontan, kontzientzia eragozpen eskubidean oinarrituaz, norberak Juradoan parte izateko ala ez "aukeratzeko askatasuna" errespetatuko dela.

Ainhoa Larrañaga Elorza.



Eusko Jaurlearitzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Laguntza berezia:** Ozkarbi elkarteak. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Sarasua eta Iker Iratzabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Argazkien errebelazioa:** Txuri-Beltz argazkizale taldea. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Joseba Elkoro, Ainhoa Larrañaga Elorza eta Juan Ramon Iratzabal. **Administrazioa:** Esti Retolaza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Billa eta Eider Etxaniz (Tel: 76.90.85). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 600 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

fundazioa
fundación

kutxa

Argazkia honen edizioan laguntzen du.

En la edición de esta publicación colabora:

1996 JAIEN ANTOLAKETAN TALDE DESBERDINAK ETA HILABETEKO LANA

-JENDE GEHIAGOK HARTU BEHARKO LUKE PARTE LAN HAUETAN, KOMISIOAREN IRITZIZ -

Gurasoen Elkarteak, Ozkarbi Elkarteak, gazteak, Udaletxeak eta hainbat pertsonak hartu dute parte Ferixa Nagusiko jaiak antolatzen. Herri Bazkariak eta ondorengo herri kirolak ez zuten esperotako jendetza erakarri plazara. 3.800.000 ptako aurrekontua zuten aurtengo jaiak.

Ferixa Nagusiko Jaiak antolatzen hilabete inguru eman dute komisiokoek. Oinarri bezela aurreko urtea izaten da eskuartean eta balorazio bat egiten da honen gainean. Komisiokoek, ekintzak funtzionatu duten edo ez ikusten dute eta errepikatzeke aukera ikusten bada aurrera bidea irekitzen dute.

Komisio honetan, herritarrek hartzen dute parte, udaletxeke ordezkariekin batera. Bertan hartu diren erabakiak dira aurten ospatu ditugun jaien emaitza.

Zaharrak berri

Ostegunean haurren egunean joku eta animazio saioak antolatu ziren. Udaletxeko ardura-dunen arabera, egun hau beti izan da umeentzako baina ez du indar asko izan. Gurasoen partehartzea antolaketa oso garrantzitsua izan zela gehitu zuten. Jende berria behar zela gehitu zuten ostantzean jendea "erre" egiten baita.

Play-backak, ume ugari

mugarazi zuen eta partehartze haundia izan zen. Oso animatua.

Rock kontzertuak Gaztetxera pasatzeak eztabaida ugari sortu zituen komisiotan eta horrekin batera joan den urtetik hona aurrekontuak izan duen beherakada. Egunero kontzertu bat izan zuten aukeran Elgetako musika eta rock zaleek. Kontzertuak Gazte Asanbladak ipinitako toldo baten azpian egin ziren.

Herri bazkariak eta ondoren izan ziren herri kirolek, uste baino jende gutxiago bildu zuen plazara.

Igandean Ferixa Nagusia

Goizean goizetik auto, kamioi eta jende asko batetik bestera. Aurtengo Ferixak, 100 abel buru inguru bildu ditu, 10 jabe desberdinenak. Elgetarrak ere asko izan ziren, animaliekin edo beraien jaki gozoak denen ahotan ipiniz.

Artesauen inguruan ikusmira haundia eta honetan ihardun zuten 5 postuk: egurra, artilea, larrua... nola lantzen zuten ikusi genuen. Gainontzean, ortuetako produktu ugari, gaztak, ezitia, ogia, txakolia, iparraldeko pateak... dazta-



Jendea ez zen animatu. Goiko eta Beheko kaleen arteko apusturik ez zen izan. Horren ordez tunelpen soka tira izan zen baina Goiko eta Beheko kaleko jendea bi ekipoetan zela.

tu eta erosteko aukera zabala.

Makinariak ere badu bere tokia eta aurten ere ikusmin haundia egon da. Egun honi dagokion moduan bisitari ugari Elgeta guttian zehar ipinitako postuak ikusten.

IGANDE
GOIZETAN ERE
ZABALIK: 9-12.

IFA

Tel: 76 80 98.

ALDI

BILTEGI
DENDA

Kirol, Burdin, Menajea.
Zugandik gertu, behar duzun beste.

SALBADOR 24
Tel: 76 82 06

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

SAN JUAN, SAN JUAN ERRE

San Juan Bezperako gauean erre ziren trasto zaharrak, paper piloak... Ate ondoan utzitako poltsa eta kaxa guztiak bizkor jaso zituzten asteetan zehar ikastolako neska-mutikoez, baita ederki babestu ere euripetik. Igande horretan, hasi ziren piloa osatzen eta gualderako sua pizteko prest zegoan dena. Gaztetxe inguruan, su txiki bat piztu zen eta txorizoa baserriko ogi gozoaz jateko aukera paregabea izan zuten bertara gerturatu zirenek.

Sua piztu zen unean gerturatu zen jendea gau horri ongi etorria eginenez. Askok suarekin beste hainbat oroimen txar eta ahaztu nahiko lituzketen istoriak erretzen dituzte, eta gau magiko horretan hainbat eskari ere egin, suari eta gaueko ilargiari begira.



PINTADAK, MARGOTU BERRI DAGOEN FRONTOIAN

Ostiral goizean frontoiko hormetan pintadak agertu ziren. Margotu berria zegoen frontoia eta txapelketetako finalak jokatzeko prest. Ostegun gauen frontoitik burua estalita zeramatzen bi pertsona ikusi ziren korrika aldegiten. Txapelketarako berriz margotuko dutela esan dute arduradunek. Ikerketak ertzantzaren esku daude orain.



EKAINAREN 23KO JAUNARTZEAK

1987. urtean zehar jaio ziren 8 neska mutikok egin zuten jaunartzea Elgetako Andre Mariaren elizan ekainaren 23an. Egun hori berezia zen San Juan bezpera zelako eta magia betetako gau horrek, bikoiztu egin zuen emozioa eta jaia gazte hauentzat.



Eneko Ormaetxea, Enaitz Ezpeleta, Iraitz Lazkano, Sandra Gonzalez, Miren Larrañaga, Alexandra Etxebarria, Maialen Garate, Leire Urgoitia.

Paxi Taberna

Kopabat

W.C.

Kartaka jolasteko giro egokia

Tel: 768093

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara.

Tel: 768078

TRIKITIXA IKASLEAK

Urte hasiera ezker, trikiti-
xa ikasten ibili dien ikasleak joan
zan domekan, Seguran jokatu zan
Euskadiko dantza txapelketara joa-
teko irteera antolau zeben. Bertan
izan zien 10 ikasleak, adi adi
jarraitu zituen txapelketako partai-
deen pauso eta buelta guztiak.

Erregen ondoren hasi ta
Amaia Agirrerren (azken hiru urte-
tako Euskadiko Txapelduna, Edu
Muruamendiarazekin batera) esku-
tik adin desberdinetako 24 lagun
hor ibili dia eguasten eta zapatue-
tan, Saloiko hautsak astintzen. Esan

bihar da euren artian oso maila
polita daukan jendia badagola eta
hurrengo urtera begira, urritik
aurrera ikasten jarraitzeko aukeria
izango dabela. Zeinek daki gazte-
txo hauen artetik ez ote daben txapeldun haundi batek urtengo?

Aurtengo kurtsoari bukaera
emoteko, joan zan zapatuan
hilak 29, partehartzaile guztiak
hamarretakua euki zeben; San Kris-
tobalak ere gainean dittugunez
izango dabe ikasitakoa erakusteko
aukeria.



IKASTURTE BUKAERA

Aurtengo kurtsoa buka-
tzen zala ta, Angiozarko eskolan
ikasten daben 14 umiak, guraso,
lagun eta gainontzekoei jaialditxo
bat eskeini zotzen. Bertan urte guz-
tian zihar Antselmo Vega eta
Marian Hernandez maixuekin lan-
dutako antzerkixa, ipuinak, olerki-
xak eta abar ikusi eta entzuteko
aukeria euki ginuen.

Bertara joaterik ez zebenak
izan, Angiozarko Telebistaren
(ATBK) bidez emanaldi guztia
ikusteko aukeria euki zeben.

Ondoren Soziedadian
alkartu zien guztientzat txokolata
eon zan.

Holako ikasle finak ez
dabenez kalabazarik eukiko, ondo
pasau bakaziñuak!!



Joan zan urte bukaerako emanaldian parte hartu zuten aktoreak.

Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

IBAIBA-
RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

Zure publizitatea
hemen azaltzea
nahi baduzu deitu
telefono honetara:

78.90.85

LEHIAKETA

Zeleta jatetxean afalduko du Iratxe Cas-
taño Markiegik. Bere erantzuna zuzena izateaz
gain zozketan Iratxe atera da garaile.

Itxuria denez, Asentzioko iturria zela
igartzea ez zen oso zaila, karta asko jaso baititu-
gu erantzun zuzenarekin. Afariak direla eta ez
direla lehiaketan parte hartzen duen jende
kopuruak gora egin du. Euskal Herrian jatun
onak garela lehendik genekien baina primerako
jana gustoko dugula ere ari gara era-
kusten. Orainarte Elgetako lau elkar-
tek eman dituzte afariak: EGA, Ozkar-
bi, Intxorta eta Mendi Mendian elkar-
teak. Orain txandapasa egin eta taber-
nak hartu dute lekukoa.

Taberna hauetan afaltzeko
hadi egon. Lehiaketako irudiak ez dira
horren zailak.

Jaietan ikusi ahal izan ditugu
erretratu desenfokatu honetan ageri
direnak. Pare ederra, baina zer dira?

Erantzuna bidali *Goibekokalera*:
Sabador 2 - 2.a esk. Elgeta (Gipuzkoa)



Izena eta abizena: _____
 Erantzuna: _____
 Bizilekua eta telefonoa: _____

KOMIKIA



Zenbateraiñoako erantzunkizuna dake gurasuek seme-alaben nota txarretan?



Jubilatua (62 urte)

Gurasuek beti dake arduria seme-alabak zelan dabizen estudixotan, nota honak darenian ondo, eta txarrak darenian tristiau. Gurasuek badake erantzunkizuna arduraik ez hartu izana ikasten laguntzeko. Ikasliak erak be esforzu bat eñ biha dabe hori bai batzuk ezin izaten dabe.



Bihargina (42 urte)

Neretako nota txarrak ataratzian erresponsabilidadia ikasliena da, hori bai, gurasuek seme-alabei lagundu eñ bihako lotzietan. Horregaitxik gurasuek erantzunkizun piskat be badake. Gurasuek seme-alabei kaña piskat sartu biha dotze, esanaz: "bazabiz ikasten", "holan ez za iritsiko inora".



Bihargina (28 urte)

Gurasuek daken erantzunkizuna txikixa da, erantzunkizuna seme-alabena izaten da. Neretako gurasuen erantzunkizuna da semiei estudixatzeko esatia eta ahal debentian laguntzia. Hala be seme-alabek nota txarrak etaratzian errua erena da.



Ikaslia (17urte)

Nere ustez seme-alabek euren kontura ikasi biha dabe, ez badabe ikasten gurasuek dake erantzunkizuna ikasliai arrazoiari sartzeko ikasten jarraitzeko edo bere bizitza aurrera eruateko.



Etxeko andria (37 urte)

Erantzunkizun handixa dauke. Suspenditzian kulpia bixena da, gurasuak ikusi eñ biha dau seme-alabek noraino al debent, ezin badau ezin dotzazu ari errua bota, halako kasuetan gurasuak gehixau lagundu eta ikasketez aparte beste urteera batzuk be badarela erakutzi biha dotza.



Etxeko andria (43 urte)

Neretako gurasuek badauke erantzunkizuna. Gurasuek seme-alabei ahal debentian behintzat ikasketetan lagundu eñ biha dotze. Hala ta be ikasle askok ezin izaten dabe. Nik ere alaba ta semiai laguntzen dotzet, gauzak dakittenian behintzat.

Berezitasuna: **BOLATOKI**
Buztana. Pintxo gozoak, otartekoak.



tel:768284



Jesús Marí Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELATAN

♈	Aries: Aurten San Antonio ondo portauko da. Merezi dabenakin.
♉	Taurus: Holako martxan Urkiolako harrixa mariaiu bihodu. Segi bueltaka.
♊	Geminis: Behin Urkiolara joan ezkeru, kandelatxo bat piztiak eztoztu kalterik eiño.
♋	Cancer: Katuak baino ixilago ibiltzen zazie, zuek bai abilidadia.
♌	Leo: San Juan eguna baiño zuen juergak luzeagoak dia, juergista.
♍	Virgo: Zenbat San Juan su ein dozuez zuen traste zaharrekin? Trasteros.
♎	Libra: Zuek bezalako makiña bat sorgin erre zittuen San Juan sutan.
♏	Escorpio: Animo San Pedrok emon dotzuen bultzakada segittuz, horrela laguntxo bat aurkituko dozu, edo bi?
♐	Sagitaris: San Pedrok baiño trumoi haundixauak eitten dittuzu.
♑	Capricornius: Herriko jaixetan ez dok/n jairik eiñ? ez daukak/n lotsarik.
♒	Acuarius: Dantza sueltoan baiño agarrauan askos hobia haiz, espabilauoi.
♓	Piscis: Ligatzeko taktika aldatu hobeto joango jatzu ta, animo bonbon.

Isabel Richard Bihargina (32urte)

Zertan eitten dozu lana?
Eroskin fruterixan.
Noiztik zabiz lanian?
Gutxigorabehera 17 urtekin hasi nintzan.
Nun egiten dozu lan? Eibarko Eroskiko Maxixan.
Erosteko supermerkauak ala denda txikixak? Denda txikixak giruagaitxik gustatzen jataz baina gure supermerkauan eitten dittut erosketak.
Gehixen saltzen dan frutia? Fruta normalak, sagarrak, platanuak.
Fruta erotik bat? Batzuk forma erotikua dauke, adibidez kalabazinak.
Zure lanian ibiltzen da jente xelebrerik? Ez nahiko pertsona normalak ibiltzen dia.
Zerek kantzaten dau gehixen lanak ala etxiak? Etxeko lanek.
Gizonak laguntzen dau etxian? Zeozer bai.
Armosutan esnia ala zumua? Kafetesnia ta kruasana.
Nolakua da zure ametsetako gizona? Seguraski ezinezkoa, nahaste bat.
Nola definiduko ziñuan zure gizona? Piskat serixua da, baina majua.
Herri txikixa ala handixa? Herri txikixa duda barik.

Zelan hartu zaitte elgetarrek?
Oso ondo, pozik nago.
Nolakoa da alaba perfektua?
Piskat tranquilaua.
Zer funtzio bete biha dau gaztetxe batek herrixan?
Gaztiei aukera emon euren ekintzak eitteko.
Zer falta da Elgetan? Bero honekin pizsinak.
Noiz maitemindu zinan lehenengo aldiz? Maitemindu ez dakit, baina gizonakin nahiko gazte hasi nintzan.
Zer eingo ziñuan munduko diru guztixa zuria balitza? Ez dakit, amets oso zailak daukat burutzeko, ez nahi ipiñi pentsatzen.
Zerk egingo ziñuzan zoriontzu?
Ondo nago holan.
Jaixetako egunik onena?
Ondiño ez nai egon, seguru



danak onak diela, baina biharra eiñ biot.
Gaupasa zein edadetik aurrera? Gazte moduan bardin doza ze edadetik, baiña pentsatzen nere alabia gaupasa eitten hasiko dala hori beste gauza bat izango da.
Ze biha da jaixetan ondo pasatzeko? Gogua euki eta diru pixkat be bai.

**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

**OSTATU
JATE TXER**
Gudarien Bide
Tel: 76 80 23 ELGETA
Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Hozkailuak eta izozkailuak aire girotua.

Salbador 21 Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

ELGETAKO



Kirolak, musika, jokoa, bazkari eta afariak, zezenak... Lau egunetako jai programaren osagarri nagusiak. Ondo nahastuz gero 96ko Ferixa Nagusiko Jaiak bihurtzen dira. Pasatu badi-

ra ere, hementxe momenturik goxo eta gogorrenak, momentu ahaztu ezinak elgetarrentzat eta guregana hurbildu diren senditar eta lagunentzako. Sinistu ezina izan da, eguraldia lagun izan bait da ia ekitaldi guztietan.

Ostegunak berarekin ekarri zituen umeentzako jolasak. Lehen ordu hauetan, play-back-eko saio bikain bat ikusi genuen. Gurasoen esanetan egun asko prestatzen igaro dituzte jantziak, abestiak, dantzak... 8 talde ikuskizun bikain batentzat eta azkenean denak sarituak.

Ostegun gauetz pregoia eta susto ederra aurtengo pregoilariarentzat Amagoia Irazabal, eskua erreta atera bait zen udaletxetik zuriziri baten ondorioz. Hala ere honek ez zion jaiari eragin eta Amagoia bera ere animatu zen hurrengo egunetan. Datorren urterako ikastaro praktikoa egin beharko dute zuziriak nola botatzen diren ikasteko.

Gaetan jendea plazaren inguruan edo bestela Gaztetxean. Musika gustu kontua denez, bakoitzak aukeratzen du nahiago duena. Aurten eguneko bi

kontzertu egon dira gazte asanbladak antolaturik eta kanpoko jende ugari ere bildu duela esan behar da. Haur eta bikoteak plazako erromerietan, pasakaile, trikiti ... hor ere berotuta, gora eta behera.

Mozorrotzeko aukera ostegun gauetz, irabazleak zirkoko kideak; animaliak, pailazoak... Gurasoak eta seme-alabak humoretsu eta lan pixka batekin zenbat lortzen den erakutsi ziguten. Arraldeko Klaudio eta Mikel ere hor izan ziren kamararekin batetik bestera galderak eginez.

Zezenak inoiz baino txikiagoak baina xeblekeria asko ikusteko aukera. Urtetik urtera protagonista izan nahi duten "Jesulin" gehiago.

Ferixa Nagusian eguraldi bikaina suertatu zen. Jendeak bizkor bete zituen bazterrak autoekin. Makina-



zeleta jatetxea

tel:768151

gustora sentituko zara.

IAPAM

Galdaragintza arina
Hoditeria
Erremitteritza
Soldadura homologatuak

Antonio Rodrigues Da Cruz

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

JAIAK



ria, ganadua eta
jaki gozoak eros-
teko eta jateko
aukera pare-
g a b e a .
I g a n d e
gauerako
nekea nagusi
izan arren azken kontzertua Gaztetxean eta sar-
dinaren entierria.

Koktel bikain bat eta asko eta asko datorren jaietarako
susperzte lanetan



VIVO
Janari
denda

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

Goio Sarasua
Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak
Etsurreak Komunak

Olzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

M^a Karmen
Lenzeria

Lenzeria eta
kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.
Tel: 789040

8. MAILAKOAK KANPORA BEGIRA

Oraingo atalean adierazi nahi genukeena honako gai hau da: "8. mailakoak kanpora begira". Beraz, atal honetan adieraziko duzuegu, *Goibekokaleko* irakurleoi 8. mailakoek zer egingo dugun.

Dena oso bizkor izan zen, irakaskileek esplikatut egin ziguten gutxi gora-behera zer den I.E.E (REM) eta zer den B.B.B. (BUP), hauek zer irtenbide dituzten...

Geure buruak ziurrago egoteko, Bergarara joan ginen ea zer moduko eskolak diren jakiteko. Erakutsi zizkiguten gelak, gimnasioa, jolastokia etab. Bakoitzean zer egingo genuen esan eta bakoitzak behar den bezala espliatu zizkiguten. Hau maiatzaren 10ean izan zen eta aurrematrikula maiatzaren 17rako egin behar genuen. Gelako guztiok bizkor batean erabaki eta eman genizkion paper guztiak irakasleari.






Paperak eman ondoren gelako guztiok ibili ginen galdezka ea bakoitzak zer hautatu zuen. zer izan behar ginen etorkizunean, ea ziur geun-

den hartutako erabakiaz etab.

Burukom ingalantak hartu genituen gutti horrengatik, baina azkenean erabakiak hartuta zeuden eta hona hemen taula bat bakoitzaren erabakiekin:

Bakoitzaren iritzien gainean, batzuek oso pozik dabilta edo daude eta besteak berriz beldurrez danpora goazelako. Kanean jendeak galdetzen digu kanpoan gauzak oso zailak direla eta horrek ere beldur piskat sartzen digu. Egun gutxi gelditzen zaizkigu gainera datorkigunerako eta prest gaudela uste dugu.

Gehiago jakin duzuelakoan agurtzen gara, hemendik, hainbeste urtetan gure eskola izan den "Elgeta Herri Eskolatik"




IRAMA
Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262 tel:
789057-768025

Bandoni Bolinaga
METALAK
FS7 18
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

XERRA PIPER GORRIKIN:

Sukaldaria: Fakundo Sarasketa.
(Mendi Mendian Elkarte)



NOLA PRESTATU:

- Kazola batetan olio berotzen ipini, beroa dagoenean berakatza eta kipula bota.
- Berakatza eta kipula su bajuan egiten utzi bigundu artean.
- Ondoren piperrak bota eta egin artean utzi, noizean behin kazola mugitu.
- Bestalde, zartagin bat hartu olio eta berakatza piskatekin, eta xerrak bertan egin.
- Xerrak egindakoan piparren gainean ipini.
- Kazolari tapa bat ipini eta su bajuan egiten utzi xerrak piper gustua hartu dezaten.

OSAGAIK (4 pertsonentzako):

- Berakatza.
- Kipula.
- Piper gorriak.
- 4 xerra.
- Olio.
- Gatza.




Gomendioak: Piperrak su bajuan egin saltsa lodia lortzeko. Horrela xerrak gustu ona hartuko dute. Piper naturalei azala ondo kentzeko: egurrezko sutan olioarekin busti piparra eta azala errazago kentzen zaio. Epela dagoela plastikozko poltsa batean sartuz gero harrotu egiten da eta errazagoa da azala kentzea.



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.
Tel: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.



JOIXON BERTAN ETA HESKEITAK TXAPELDUN BERRIAK

Urtero bezala, ekainaren erdialdera futbitoko finalak jokatu ziren Elgetako Udal polikiroldegian.

Arratsaldeko lehenengo finala neskek jokatu zuten. Ligan zehar onenak izan ziren Joixon Bertan eta Gaztiak izan genituen aurrez-aurre. Partidua oso parekatua izan zen joko gehiena erdialdean garatu zelarik. Partiduaren gakoa jokaldi puntaletan egon zen, Joixon Bertanekoek asmatu egin zituzten beraien gol aukerak eta Gaztiakoek berriz ez. Horrela bada, partidu bukaeran txapeldu-nak Joixon Bertanekoak izan ziren 3 eta leku emaitzaz. Nesken txapelketak izan duen puntu beltz bakarrarenetarikoa finala jokatu duten taldeen eta besteen artean egon den diferentzia handia izan da.

Ondoren nagusien finala jokatu zen. Final hau aurreko urteko berbera izan zen baina oraingo honetan emaitza guztiz alderantzizkoa suertatu zen.

Hasera batean Txapelakok faborito aurkezten ziren, besteak beste, lehen fasean futbol politena eta onena egiteaz gain lau puntu

bakarrik galdu zituztelako. Finala aurrekoa bezala hasi zen Heskeitak lehen minutuetan aurreratu baitzen markagailuan. Txapelak berdindu ondoren berriz ere Heskeitakoek aurrea hartu zuten eta momentu horretan, 2 eta 1 zeuden, partidua erabaki zezakeen jokaldia etorri zen: Txapelaren aldeko penaltia. Penaltia Haritzek (txapelketako goleatzaile nagusia) jaurti zuen eta oso gaizki jaurti gainera atezainak ez baitzuen inongo arazorik izan gelditzeko. Penaltia huts egin eta berehala Heskeitak hiru-garren gola sartu zuen eta Txapelakok berdintzea lortu bazuten ere, 23 segundu falta zirela partidua erabakita utzi zuen gola sartu zuten Durangokoek. Azken emaitza 4 eta 3koa izan zen.

Epaile-

en lanak ere merezi du aipamena. Bai finalerdietan eta baita finalean ere epaileen lana nahiko kaskarra izan da, oso argiak izan diren jokaldietan huts nabarmenak egin baitzituzten -honek ez du esan nahi jokalarik batzuen jarrera onargarria izan denik.

Argi dagohurrengo urterako gauza asko aldatu beharko direla, txapelketa honek hutsune nabarmenak izan baititu hainbat gauzetan.



Joixon Bertanek eta Gaztiak final ederra eskaini ziguten.

ELGETAKO GAZTETXOAK ANTZUOLAKO ETA ELORRIXOKOAK BAINO HOBETO



Lau taldeek ikuskizun ederra eskaini ziguten.

Elgetarrek garaipena eskuratzeko lortu zuten "etxean" jokatutako kuadrangularran. Txapelketa honetan elgetarrek gain, antzuolatarrak eta Elorrixoko bi taldek parte hartu zuten. Finalerdietan, Elgetakoek Elorrio Aren aurka neurtu zituzten indarrak eta antzuolatarrak berriz Elorrio Bren aurka. Bai elgetarrek eta baita antzuolatarrak ere erraz gaudituz zituzten beraien partidua. Beraz, finalean, azken hilabeteetan hainbestetan jokatutako bi taldek jokatu zuten, garaipena elgetarren-tzat iza zelarik. Azken emaitza 9 eta 5koa izan zen. Aipatzen da txapelketa osoan egon zen antolakuntza eta giro ona.

OZKARBI DEBA ARROKO FINAL GUZTIETAN GARAILE

Ekainaren 9an Elgetako pilotalekuan jokaturako Deba Arroko finaleran Ozkarbik garaipena lortu zuen maila guztietan.

Jaialdiari hasiera eman zion partiduan, Antxia II.ak eta Urberuagak 14 tantotan utzi zituzten Eriz eta Arrieta soraluzetarrak. Partidu honetan Ozkarbiko ordezkariak ez zuten arazo handirik izan - nahiz eta markagailuak bestelakorik pentsarazi - partidu guztian zehar aurretik joan baitziren.

Bigarren partiduan, Xabier Uberak eta Peñalverrek Laskurain eta Rodriguezen aurka neurtu zituzten indarrak. Partidu honetan indarrak oso parekatuak izan genituen, soraluzetarrak oso serio jokatu zuten aurrean joan baitziren hemeretzigarren kartoirarte. Momentu horretan, markagailuak 19 eta 16ko emaitza adierazten zuenean, zorte

piskatekin egindako tantu batek partiduari buelta eman zion elgetar ordezkariak 22. kartoira helduz.

Hirugarren eta azken partiduak, Ubera I eta Elorriagak Inurrategi eta Dominguezen aurka jokatu zutena, aurrez espero zena egiazatu besterik ez zuen egin. Elgetar ordezkariak aurrean kargatu zuten beraien joko guztia Dominguezen hutsak behartuz. Horrela beste munduko partidurik egin gabe irabaztea lortu zuten. Azken emaitza 22-18.

Promozio txapelketa Elgetan

Urtero bezala Deba Arroko herri gehientsuenak promozio txapelketa jokatu zuten. Promozio txapelketa honen helburu nagusia



Peñalver finaleko pilotaririk onenari ematen zaion garaikurra jasotzen.

umeek egun alaia pasatzea da eta bide batez pilota mundua bultzatzea. Elgetan ospatu zen eta Eneko Ormaetxeak bere kategorian garaipena lortu zuen.

Bukatzeke esan, frontoian agertu diren pintaden erruz Berazaluze VII eta Otaegik jokatu beharreko partidua beharbada atzeratu egingo dela. Beste finalerdian Berrandok 10ean utzi zuen Badiola (Lekeitio).

SASKIBALOA: AZKEN IHARDUNALDIAN GARAIPENA ETA BIGARREN POSTUA

Denboraldia amaitutzat ematen zen partiduan, garaipena ezezik bigarren postua lortu zuten elgetako saskibaloilariek.

Azpitxapeldun geratzeko ezinbestekoa zuten beraien partidua irabaztea eta ondoren bigarren postuan zeudenen porrota. Nahiz eta partidu zaila eduki -aurrean zuten taldea txapelketako talderik boteretsuenetakoa da- txapelketa osoko partidu onenarikoa jokatu garaipen erraza lortu zen. Euren eskuetan zegoen guztia egin ondoren, dagoeneko txapeldunak ziren eta bigarren postuan sailkatuak zeudenen arteko partiduan gertatuko zena ikustea besterik ez zen geratzen. Hasie-

ra batean, bi taldeak Ermutarrak izanik "tongo" egon zitekeela ere pentsatu zen, baina partidua aurrera joan ahala txapeldunek argi utzi zuten ez zeudela partidua galdutzat emateko prest, azkenean sortzi puntutako aldeaz irabaziz (49-41). Honela, Estampaciones Elgetak denboraldiari amaiera ezinobea ematea lortu zuen nahiz eta txapelketa nahiko irregularra egin.

Txapelketa amaiera eta bide batez bigarren postua ospatzeko Estampaciones Elgetako arduradun diren Valentin Vila eta Joan Mari Azkaratek afari eder batetara gonbidatu zituzten taldeko jokalarri guztiak.



M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67

HAIZEA
TABERNA

giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256

Larunbata eta igandetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel:768273

LARRAGIBEL ZEHARRA (IV)

Aurreko alean, Isusigarra auzoa desagertzeaz zegoela esan bagenuen ere ezin esan gauza bera Larragibel auzoari buruz. Lapurdiko baserri biak kontutan izan gabe, beste baserrietan jendea bizi baita. Baserri hauetaz aparte beste hiru etxebizitza berri eraiki dira bertan. Zaila da ulertzea, nola auzo batzuetatik jendeak alde egin duen bitartean beste batzuetan etxe berriak eraikitzen diharduten. Baliteke Larragibel herritik hurbil egoteak eta bide ona edukitzeak hortan zer ikusia izatea.

Nork ez ote ditu paraje hauek ezagutzen. Isusigarra auzo-arekinkonparatuz gero, laster ohar-tuko gara ezberdintasunez. Larragibel inguruetan 7 baserri eta hiru etxebizitza berri daude. Kokapen aparta herritik hurbil honek dakartzan abantailekin eta auzoalde baten lasaitasuna. Pasealeku bikain honek ere baditu bere sekretuak.

Auzoaren edo bertako baserrien izenetan erreparatzen badugu, argi ikusiko dugu, auzo honetako ezaugarri nagusia bertako larreena (zelaiena) zela. Honen adibide ditugu Larragibel (osteko larrea), Larrabil Goikua, Larrabil Erdikua, Larrabil Txikixa eta Larrabil Haundixa (azken 3 hauek ezagunagoak dira gaur egun, San Juan, Larrabiltxo eta Abadekua izenekin).

Baserrien kokapena hurrengo da:

San Roke ostetik aurrera eginez gero, lehenengo Larrabil aurkituko dugu bide azpialdean, beheaxeago azpialdeko bidean San Juan eta Larrabiltxo aurkituko ditugu. Bidean aurrera eginez gero, Abadekua topatuko dugu aurrez aurre eta bidearen amaieran Bastarrika. Presarako bidea hartuz gero, Lapurdiko bi baserrietara heldu gintezke. Bat bidearen gainaldean dago eta bestea azpialdean.

Larrabiltxon arratsalde batez

Hainbat kontu eta istorio dakizkizkiete Mariak eta bere alabek. Amak (Mariak) hainbat gauza kontatu dizkie, baina aita zen Pablok, 1800. urtetik hona, bere ahaideen dokumentu asko zituen pilatuta, "papel zaharrak" esan ohi zuen. Hainbat bitxikeri daude notario eta idazkariek eskuz jasotzen zituzten paper horietan: jabe-go paperak, ezkontza-kontratuak, ordainagiriak... Ia bi mende, tintaz, letra dotorez bilduta, familia baten memoria dira.

Mariaren esanetan, gaur egungo San Juango baserriaren izena, bertan zegoen ermita batetik datorkio. Abadekua berriz, Larrabil handia zena, monja bati dote bezala eman zitzaion, eta desamortiza-



Presara bidean aurkituko ditugu Lapurdi goikoa eta behekoa. Jabeen bisita jasotzen badute ere, auzoan hutsik dauden baserriak bakarrak dira.

zio baten ondorioz, elizari jabegoak kendu zitzaizkion. Gainera, baserri honen inguruan, beste anekdota bat ere esan zigun. Abadekuan, armairu eder bat omen zegoen. Armairua gela baten alde-nik-alde zegoen, egur beltzekoa, eskuz landutako irudi ederrekin. Hainbat jende hurbiltzen zen ikustera eta etxeok erakutsi ere erakusten zuten. Behingo baten trapezu batek 22.000 pta eskeini zizkion armairu horregatik eta jabeak saldu



Ongien zaindu duten auzoa da. Herritik hurbil, jendearen bisita asko izaten ditu eta Abadekuak bezala, gainontzekoek ere, inguru guztiak txukundu dituzte.

egin zuen. Berandua-
go Mariak traperu
hauekin topo egin
zuen Donostia aldean
eta 40.000 durogatik
Arabako diputaziora
saldu zutela esan zio-
ten, ikaragarriko
negozioa egin zutela
gehituz.

Larrabiltxoko biztan- leak

Gaur egun
Maria eta 10 seme-ala-
bak bizi dira, baina ez
Larrabiltxoko teilatu-
pean. Alaba bat
Colombian, seme bat
Argentinan eta gai-
nontzekoak han eta
hemen beraien lan eta
ardurekin. Maria

Larrabiltxora ezkondu zen Lapur-
ditik etorrita duela 96 urte eta han,
Pablo Arantzetakin ezkondu zen,
Larrabiltxoko semea berau.

Paperetan gora eta behera
aritu ginen, eta XIX. mendean
zehar gauzak nola egiten ziren
ikusteko aukera izan genuen.

Lehenago baserriotan bizi
ziren laborari edo nekazariak ez
ziren berauen jabeak izaten. Baserri
gehienak jauntxoren batenak izaten
ziren. Larrabiltxon ere antzeko zer-
bait gertatzen zen. Larrabiltxo,
Pelayo Iturrikastillo notarioarena
zen inguruko beste baserri askoren
antzera. Honek ondo ezagutzen
zuen Larrabiltxo eta bertako fami-
lia, eta berak bezala bere seme zen
Domingo Iturrikastillok. 1866an
baserri honetara itzuli zen Domi-
ngo bere azken urteak hor igarotze-
ko asmoz. Horrela pasatu zituen
Jose Juakin Arantzeta eta bere biga-
rren emazte zen Juliana Askasiba-
rrekin.

Honen testigu da bi alder-
dien artean sinatutako akordioa.
Domingo Iturrikastillok, baserria
ematen zuen eta Jose Juakin eta



Larrabiltxokoek atek ireki zizkiguten. Arratsalde batez aspaldiko kontuetaz aritu zitzaizgun Maria eta bere alabak. 10 anai arreba munduan zehar barreiatuta eta 96 urteko amarekin.

Julianak ondorengo bete-behar
hauek izango zituzten:

"Gosaltzeko txokolata
ematea edo honen orde, zopa, sal-
da, esnea edo arrautzak. Bazkal
orduan familiak jango zuena,
meriendarako txokolata ogiarekin.

*Herritik hurbil dagoe-
nez, jendea bizi da
Larragibel auzoan. etxe
berriak ere egitera ani-
matzen du lekuak. Para-
je ederra da auzotarrak
arduratzen dira parajea
txukun edukitzen*

Afaltzeko familiak hartuko zuena,
eta egunerako, "kuartillo erdi bai-
no gehiago ez". Hau janariari dago-
kionez, eta jatzeko betebeharra ere
bazuten, tabakoa lortzea ere bai,
eta igandetarako 50 zentimu ema-
tea. Heriotza heltzen zitzaionean
entierroko gastuez baserrikoak
arduratuko ziren.

Ezkontzeko kontratuak ere
egiten zituztela ikusi genuen.
Ez kongaiak familia bakoitzeko bi
odezkarirekin notario aurrean
sinatzen zituzten kontratuok. Jose
Juakin Arantzeta eta Juana Maria
Ojanguren Iratzabalbeitia ezkondu
zirenean esaterako, hurrengo hauek
izan ziren bakoitzaren doteak:

Juana Marirena:
-300 dukatu
-50 dukatu, jostun ikaske-
tarako
-2 ohe, bata 3 koltxoiekin
eta bestea 2kin
-2 ohe buru
-Kutxa eta armairu bat
-Baratza lantzeko tresneria
-Samaua(mantela), 2 mahai
zapi eta eskuohialak
-10 jantzi beltz eta 10 azpi-
ko erropa txuri
Jose Juakinena ordea:
-2 ohe
-kutxa bat
-200 dukatu
-50 dukatu zurgin ikasket-
tarako
-bizitokia

*Larrabiltxo familiak ondare historiko ikaragarria du paper eta dokumentuetan
bilduta. Han ikusi genituen familien artean egiten ziren ezkontza kontratuak:
diru kopuruak, oheak, armairuak, mahaiak...*

ESKOBA BANU

Hainbat zurrumurru esan eta entzun ditugu Elgetako Gaztetxearen gainian.

- Zer egingo dabe honek ganorabakuok!

- Zaratak, eran, erre... triskantzia baka-rik!

Ohitura erreza daukagu emaitzak bete aurretik zurrumurru eta kritikak jaurtitzeko, gure burua emaitzak plazaratzen hasi dia:

- Euskal kulturarekin lotutako hainbat ekintza eta ikastaro burutu: txalaparta, hankapaloak, trikitixa, dantzak...

- Asentzioko egunaren berreskuraketa.

- Azoka nagusiko jaiak antolatzen eta biharrezko lanak eitten, EGAkoak gehixen-guak dia.

- Eta euren giruan momentu goxuak pasatzeko, txiko egokixa jarri dabe.

Neuk be bi seme koskortzen dakaraz, eta laister bide bardiña hartuko dabe, norberaren girua eta askatasun pixkat bilatuz.

- Zaratia eta algaria sortzen dabela? Sasoian sasoikuak.

- Eran eta erre? Guk be onartuta daukagu ardo basokada eta zigarrotxo bat ez die-la kalterako.

- Gure sasoian ez zala halakorik bihar ondo pasatzeko? Denborak eta bizimodu aldatu egin dia. Zegaitik ez onartu?

Izandako zurrumurru eta kritikei aurre egiteko, izenburua " Eskoba banu". " Sí yo tuviera una escoba..." Abestian oinarrituz, zer garbittu?

- Mingailuze zorrozdu-nak garbittuko nittuake, euren gozamenerako eta ezer konpondu barik aldamenekuen ekimenak baztertu eta kalteak eta gaizki egindakoak, osatzeko sendagarritzat hartuz.

Eta zuei, EGAkuok, jarraitu holaxe. Akatsak izan dituzue (ezer ez dabenak eitten ez dau akatsik izaten). Baina aziertuak gehixau izan dia. Aurrera!

J.R Irazabal

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA



Argazkia: Antonio Iturrikastillo.

Jubilatuak 1980ko jaietan

Hil honetan Elgetako jaiak pasa direla eta hemen gatoz, orain dela urte gutxi batzuetako jubilatuenean ateratako erretratuarekin (79-80). Bertan, herriko jubilatu gehienak daude.

Gogoratzen baduzue, erretratu hau azken hamarkadan ateratakoa da. Berriz ere jubilatuenean eguna ospatzen hasi zirenekoa hain zuzen.

Urte horretatik, urtero ospatzen dute egun hori baita ondo ospatu ere. Zergatik ez? Ondo merezia daukate. Ia aurtengoan bezalaxe hurrengoan ere ondo igarotzen duzuen. Dударik ez dago horrela izango dela. Gehiago luzatu gabe, argazkiko pertsonen izenak emango ditugu:

Goian eskubitik ezkerre: Juan Alzuaran, Antonio Agirrezaldegi, Iñaxio Arantzeta, Lorentxo Errasti, Alejandro Bolinaga, Fermin Urien, Dionixio Bolinaga, Patxi Iratzabal, Patxi Elorriaga, Eulajio Arotzena, Jose Bolinaga, Eleuterio Askasibar, Jazinto Saratsua, Jose "pasteles", Bartolo Arantzabal.

Beheko hilaran: Julian Gorosabel, Felix Iturrikastillo, Sebastian Egizabal, Alejandro Mendikute, Balbina Azkarate, Asun Zubiate, Juanita Ugalde Rufino Gorosabel, Juan Villar, "ezezaguna", Raimundo Villar.

Hurrengoko hilaran: Antonio Alberdi, Jose Gorosabel, Pedro Agirre, Juana Leturia, Jesusa Garitano, Asun Uriarte, Luzia Basauri, Daniela Arantzabal, Juana, "ezezaguna", Luzio Ubera, Gregoria Askasibar, Alejandra Ojanguren, Karmen Retolaza, Angela Argarate, Sidiaka Saratsua, Anizeto Lamarain, Felipa Telleria.

Azken aurreko hiladan: Juliana Arantzeta, Katalina Larrañaga, Justa Fuldain, Lorentza Ojanguren, Teodora Basauri, Karmele, Hilaria Beistegi, Benita Gallastegi, Apolonia Atorrasagasti, Ebarista Sarrao, Jesusa Ulazia, Merzedez Aranburu, Antonia Basauri, "ezezaguna", "ezezaguna", Josefa Narbaiza, Ana Elortza, Josefa Etxeberria.

Beheko hiladan erditik eskubira: Frantzisko Garate, Manuel Atxukarro, Antonia Askasibar, "ezezaguna" Justo Lamariano, Rufina Atorrasagasti, "ezezaguna", Maria Askasibar, "ezezaguna", Patxi Basauri.

ZORIONAK

Elgetako udaletxeak elgetar
guztiak zoriondu nahi ditu.

Eskerrikasko antolatzen parte
hartu duzuen guztioi.



**ELGETAKO
UDALETXEA**